

*Aurrera, batera!*

**Tolosa**

*Mira al futuro*



***Etorkizunari ilusio eta indarrez heltzen diogu, etorkizuna ereiten jarraitu behar dugulako, elkarrekin, elkarlanean, Tolosak aurrera egiteko, garenaz harro, komunitate senari eutsiz.***

**Duela 8 urte ekindako bideari jarraipena eman nahi diogu proiektu berriekekin tolosarren alde lanean jarraitzeko.**

**Gogoz, ilusioz eta arduraz eusten diot Tolosa gidatzeko erronkari, gure herriari behar duen eta merezi duen etorkizuna emateko, proiektu berrien eskutik, garenetik abiatuta, gure nortasuna balioan jarriz eta sendotuz, komunitatearekin elkarlanean. Gizarte babesean, ekonomiaren garapenean eta nortasunean azpimarra jarrita. Hori da defendatzen dudana hiri eredua eta etorkizunean nahiko nukeen Tolosa: ekonomikoki oparoa, abegitsua eta eskuzabala, tolosar guztien ongizateaz arduratzen dena, kulturalki bizia, euskaltzalea, berdinzalea eta aldaketa klimatikoaren erronkari erantzungo diona. Hori da aurrera egiteko bidea, zuekin egin nahiko nukeen bidea.**

***Afrontamos el futuro con ilusión y fuerza. Tolosa debe seguir avanzando por medio de nuevos proyectos. Debemos afrontar los retos con determinación, juntos y juntas, de forma colaborativa.***

Queremos consolidar el camino emprendido hace 8 años con un proyecto ilusionante y un equipo de trabajo fuerte.

Asumo este reto con emoción, ganas y responsabilidad, con el propósito de seguir mejorando Tolosa y situar nuestro municipio en clave de futuro de la mano de nuevos proyectos; partiendo de lo que somos, de nuestros valores, basando nuestra labor en la cercanía y en la escucha; poniendo el acento en la protección social, en el desarrollo económico y en nuestra identidad. Ese es el modelo de ciudad que defiendo; la Tolosa que me gustaría en el futuro: una Tolosa económicamente próspera, socialmente cohesionada, culturalmente viva, euskaldun, igualitaria y sostenible. Ese es el camino a recorrer para avanzar. Ese es mi compromiso con Tolosa.



**XARLES ITURBE PASABAN**

**Tolosako alkategaia**

Candidato a alcalde de Tolosa

***44 urteko tolosarra. Ezkondua eta hiru semearen aita. Industria-ingeniarria da eta MBA masterra du.***

*Tolosarra de 44 años. Casado y padre de tres hijos. Es Ingeniero Industrial y tiene un máster MBA.*



TOLOSA



**XARLES  
ITURBE  
PASABAN**



**BIOTZA  
AGIRRE  
UGALDE**



**LEIRE  
ZUBELDIA  
REZOLA**



**XABIER  
BALERDI  
TOLOSA**



**AINHOA  
DOMINGUEZ  
LANDA**



**PATXI  
AMANTEGI  
ZUBIRIA**



**IKER  
USON  
GONZALEZ**



**IZARNE IGLESIAS  
GARCIA DE  
ITURROSPE**



**ITXAROPENA  
URKIOLA  
NEGREDO**



**JON  
ZALDUENDO  
TELLERIA**



**NEREA  
ZAMORA  
ETXEESTE**



**JAVIER  
ZABALA  
SASTRE**



**JOANA  
EZKIAGA  
JAUREGUI**



**GERMAN  
ORMAZABAL  
ARTOLAZABAL**



**AINHOA  
ETXEERRIA  
ARANBURU**



**ARITZ  
DAVILA  
BERAZA**



**OLATZ  
PEON  
ORMAZABAL**



**JOKIN  
AZKUE  
ARRASTOA**



**JOKIN  
BILDARRATZ  
SORRON**



**MIRENTXU  
ETXEERRIA  
ARRUE**

# GURE LEHENTASUNAK



## ONGIZATEA ETA ZAINTZAK BIENESTAR Y CUIDADOS

**Gizarte politika eraginkorrak sustatu tolosar oro babestu eta tolosarren beharrei erantzuteko, biztanlegoaren zahartzearen erronka eta zaintza erdigunean jarrita; oinarri komunitarioa eta laguntzarako ekosistemak indartuz, gizarte eragile eta boluntarioekin elkarlanean.**

Promover políticas sociales eficaces para garantizar el bienestar de todas las personas y responder a las necesidades de la población, dando centralidad al envejecimiento y a los cuidados, potenciando la comunidad y los ecosistemas asistenciales en colaboración con agentes sociales y voluntariado.



## EKONOMIAREN GARAPENA DESARROLLO ECONÓMICO

**Ekonomiaren garapena eta sustapena herritarren ongizaterako. Kalitatezko enpleguaren alde lanean jarraitu, jarduera ekonomikoa bultzatzeko ekimen berriak sustatuz, industriari, elikadura sektoreari, hiri ekonomiari, ekintzailtzari, turismoari eta azokari lotuta.**


El desarrollo y la promoción de la actividad económica garantizan el bienestar individual y colectivo. Impulsaremos el empleo de calidad por medio de nuevos proyectos ligados a la industria, al sector agroalimentario, la economía urbana, el emprendimiento, el turismo y la feria de los sábados.



## HERRI NORTASUNA: GARENAZ HARRO SENTIDO DE PERTENENCIA: CULTURA, EUSKARA Y DEPORTE

**Herri nortasuna indartu eta balioan jarri kulturari, kirolari eta euskarari lotuta, Tolosa kohesionatu, euskaldun, kulturalki bizi, kirolzale, abegitsu, anitz eta berdinzaleago baten alde.**

Puesta en valor de la identidad propia ligada a la cultura, al deporte y al euskera a favor de una Tolosa cohesionada, culturalmente viva, euskaldun, amante del deporte, diversa e igualitaria.



## TOLOSA BERDEA, JASANGARRIA TOLOSA VERDE, SOSTENIBLE

**Ingurumena zaintzen duen eta pertsonak erdigunean jartzen dituen Tolosa, atseginagoa, irisgarriagoa eta berdeagoa; trantsizio energetikoaren eta mugikortasun eredu jasangarrien eskutik.**

Una Tolosa que cuida de su entorno y pone a las personas en el centro. Una Tolosa más amable, accesible y verde dando pasos hacia la transición energética y modelos de movilidad más sostenibles.



## ELKARLANEAN OINARRITUTAKO GOBERNANTZA GOBERNANZA COLABORATIVA


**Herrigintza herritarrekin. Gertutasuna, elkarlana eta gardentasuna oinarri. Gertutasunean oinarritutako gobernantza eta arretaren bidez, kalitatezko arreta eta zerbitzuak eskaintzeko.**

Basaremos nuestra labor en la cercanía, la colaboración y la transparencia a favor de nuevos modelos de gobernanza y una atención y unos servicios de calidad.

# GIZARTE ZERBITZUAK HERRITARRENGANA GERTURATU ACERCAR LOS SERVICIOS SOCIALES A LA CIUDADANÍA

**Inor atzean utzi gabe, Gizarte Zerbitzuak herritarrengana gerturatu eta ezagutzera eman: etxez etxeko laguntza, Eguneko Arreta Zerbitzua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, familiei zuzendutako programa eta laguntzak, bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako eguneko eta gaueko arreta (Abegi), besteak beste.**

Acercar y dar a conocer la cartera de Servicios Sociales, sin dejar a nadie atrás: ayuda a domicilio, Servicio de Atención Diurna, Ayudas de Emergencia Social, programas y ayudas dirigidas a familias y menores, servicio de atención integral a personas en situación de exclusión (Abegi), entre otros.



## ADINEKO PERTSONAK PERSONAS MAYORES

**Adineko pertsonen bizi kalitatea hobetzeko eta zahartzaro osasuntsua bermatzeko programak eta estrategia bateratuak sustatu bakardade egoerei aurre egiteko. Adineko pertsonekin begirunea duen herria sustatu; ariketa guneak eta ibilbide irisgarriak. 70 urtetik gorako pertsonen gaikuntza digitalerako mintegiak antolatu.**

Programas para mejorar la calidad de vida de las personas mayores y estrategias conjuntas para promover el envejecimiento saludable y combatir situaciones de soledad. Espacios de ejercicio e itinerarios accesibles y organización de talleres para la capacitación digital de personas mayores de 70 años.



## ZAINZA ETA PREBENTZIOA CUIDADOS Y PREVENCIÓN

**Zaintzaileak zaintzeko programak eta zaintza eredu berrien aldeko apustua. Azpiegiturak behar eta eredu berrietara egokitu. Zaintza sareak indartu behar berriei erantzuteko. Prebentzio alorrean lanean jarraitu, lanketa berezia eginez gazte eta nerabeeekin. Adikzioen Tokiko Plan berria aurrera eramán.**

Programas para cuidar a las personas cuidadoras. Apuesta por nuevos modelos de cuidados. Refuerzo de las redes de cuidado para responder a las nuevas necesidades. Trabajar en el ámbito de la prevención, poniendo el acento en las personas jóvenes y adolescentes. Implementación del nuevo Plan Local contra las Adicciones.



## ONGIZATE EMOZIONALA BIENESTAR EMOCIONAL

**Komunitatea sendotu jarduerak, zerbitzuak, espazioak eta eragileak bateratuz eta sareak indartzuz, herritarren ongizate emozionalerako. Tolosatzen Eskola Irekiaren bidez, emozioen lanketarekin jarraitu, aste tematikoak antolatuz: psikologia, bizitzaren filosofia, suizidioa, indarkeria edota osasun emozionala lantzeko.**

Fortalecer la comunidad coordinando actividades, servicios, espacios y agentes y reforzando las redes existentes para el bienestar emocional de la ciudadanía. A través de Tolosatzen Eskola Irekia, organizar semanas temáticas sobre, psicología, filosofía de vida, suicidio, violencia o inteligencia emocional.



## ELKARTEGINTZA, BOLUNTARIOTZA ETA BELAUNALDIARTEKOTASUNA ASOCIACIONISMO, VOLUNTARIADO E INTERGENERACIONALIDAD

**Tolosa inklusibo, abegitsu eta solidarioa elkartegintza ezagutzera emanez eta beren lana balioan jarriz. Integrazioa eta belaunaldiartekotasuna sustatu adineko pertsonen ezagutza eta esperientzia gazteekin partekatuz. MUGI ibilaldiak indartu adin desberdinetako pertsonen elkar-ezagutza sendotzeko.**

Impulsar la red de asociaciones y puesta en valor de su trabajo a favor de una Tolosa inclusiva, diversa y solidaria. Fomentar el conocimiento mutuo y la integración con la creación de espacios para compartir experiencias. Reforzar la iniciativa MUGI, para fortalecer las relaciones intergeneracionales.



## OSPITALE PUBLIKOA ETA OSASUN ARRETA HOSPITAL PÚBLICO Y ATENCIÓN SANITARIA

**Eskualdeko ospitale publiko berria Tolosan eraikitzeko konpromisoari eutsi, erakundeen arteko lankidetzatik, pauso irmoak emanez. Lanketa urbanistikoa finkatu eta Osasun Sailarekin hitzarmena sinatu. Ospitale publiko berria eraiki bitartean, kalitatezko zerbitzu eta arreta exijitu Asunción Klinikian.**

Ratificar el compromiso de construir en Tolosa el nuevo hospital público comarcal. Seguir dando pasos en colaboración con el Gobierno Vasco: proyecto urbanístico y firma del convenio con el Departamento de Salud. Exigir un servicio y atención de calidad en la Clínica de la Asunción hasta su construcción.

## TOLOSA BERDINZALEA TOLOSA IGUALITARIA

**Gizartearen eraldaketarako, ANDRAGORA, Tolosaldeako Emakumeen Etxea baliabide eta zerbitzuez hornitu. Indarkeria matxistaren aurkako borrokan jarraitu eta indarkeria jasan duten biktimen arreta hobetu. LGTBIQ+ kolektiboarekin elkarlana indartu, eta kolektiboaren errealitatea ikusarazi.**

Dotar de recursos y servicios ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea como clave para la transformación social y el empoderamiento de las mujeres. Continuar con la lucha contra la violencia machista y mejorar la atención a las víctimas. Reforzar la colaboración con el colectivo LGTBIQ+.





## TOLOSA KULTURALKI BIZIA TOLOSA CULTURALMENTE VIVA

**Kultur ekimen eta sormena sustatu. Kultur programazioa berraztertu, gazte eta nerabeei egokitutako kultur-eskaintza osatzeko. Herriko jaietan herritarren parte hartzea indartu.**

Promover la iniciativa y creación cultural. Revisar la programación cultural para completar la oferta adaptada a jóvenes y adolescentes. Potenciar la participación ciudadana en fiestas.



## TOLOSA EUSKALDUNA, EUSKARAREN ARNASGUNE

**Euskararen erabileran eta herritarren euskalduntzean azpimarra jarri. Eragileekin elkarlanean euskararen aktibazio soziala sustatu eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana aurrera eraman.**

Impulsar el uso del euskera y la euskaldunización de la ciudadanía. Potenciar la activación social y llevar a cabo el Plan de Acción para la Promoción del Euskera con diversos agentes.



## ELKARBIZITZA ETA ELKAR ERRESPETUA CONVIVENCIA Y RESPECTO


**Bizikidetzaren alde eta memoria berreskuratzeko lanean jarraitu, bakean, elkarbizitzan eta errespetuan oinarritutako etorkizuna eraikitzeko, giza eskubide oren defentsan.**

Trabajar a favor de la convivencia y la memoria histórica para construir un futuro basado en paz, convivencia y respeto, en defensa de todos los derechos humanos.

## TOLOSA KIROLZALEA, AISIALDIRAKO AUKERA BERRIEKIN TOLOSA AMANTE DEL DEPORTE CON NUEVAS OPORTUNIDADES DE OCIO

**Kirol azpiegiturak indartu, kirol anitzak sustatu eta emakumezkoen kirolari ikusgarritasuna eman. Berazubín belar artifiziala, kirol praktika ezberdinak egiteko guneak, mota eta adin desberdinetako pertsonentzako parkeak (ur jolasak barne) eta eremu estali berriak (Amarotzeko frontoia).**

Infraestructuras deportivas para impulsar la práctica de diversos deportes y visibilidad al deporte femenino. Hierba artificial en Berazubi, creación de espacios multideporte y parques para personas de diferentes edades, nuevas zonas cubiertas (frontón de Amaro) y un nuevo espacio con juegos de agua.





## 111 ETXEBIZITZA BABESTU BERRI AMAROTZEN

111 VIVIENDAS PROTEGIDAS EN ALQUILER EN AMAROS

**Alokairuaren aldeko apustuan, Visesak elkarlanean, alokairura bideratutako 111 etxebizitza babestu Amarozen, eremuaren garapenaren lehen fase modura. Tolosarrek izango dute lehentasuna etxebizitza horietarako sarbidean. Bigarren fasean, 185 etxebizitza berri: 81 babestu alokairuan eta 104 etxebizitza libre. Eremuan eraikiko diren etxebizitzaren %65a babestua.**

En la apuesta por el alquiler, en colaboración con Visesa, construcción de 111 viviendas protegidas en alquiler en Amaro, como primera fase del desarrollo de la zona. Los y las tolosarras tendrán prioridad en el acceso a estas viviendas. En una segunda fase se promoverán 185 viviendas (81 protegidas en alquiler y 104 libres). El 65% de las viviendas que se construirán en el ámbito serán protegidas.



## IURRAMENDIKO EREMUAN, ALOKAIKURUKO 15 ETXEBIZITZA BABESTU

15 VIVIENDAS PROTEGIDAS EN ALQUILER EN IURRAMENDI

**Iurramendin udal jabetzako alokairuko 15 etxebizitza babestu eraikitzeke proiektua idatzi eta eraikuntza lanei ekingo zaie, helburu hartuta, tolosarrei eta bereziki gazteei etxebizitza aukera berriak eskaintzea, etxebizitza sarbidea erraztea eta gazteen emantzipazioa bultzatzea. Horretarako, etxebizitza eredu berriak aztertuko dira. Bigarren fasean 22 etxebizitza berri, erdiak babestuak.**

Redacción del proyecto y construcción de 15 nuevas viviendas protegidas en alquiler de titularidad municipal con el objetivo de ofrecer nuevas oportunidades de vivienda a los y las tolosarras, especialmente a jóvenes, a fin de facilitar la emancipación y el acceso a la vivienda. Para ello se analizarán nuevos modelos de vivienda. En una segunda fase se construirán 22 nuevas viviendas, la mitad protegidas.



## ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIKURUAN

VIVIENDAS VACÍAS EN ALQUILER

**Hutsik dauden etxebizitzak eraberritu eta erregimen babestuko alokairuan jar daitezzen dirulaguntzak eskatzeko epea urte osora zabaldu herritarrei erraztasunak emateko. Helburua: ahalik eta etxebizitza huts gehien merkaturatzea eta Alokabideren bidez alokairuan jartzea. Alde Zaharra biziberritzeko helburuarekin, pizgarriak handiagoak dira Alde Zaharrean.**

Ampliar a todo el año la convocatoria para solicitar las subvenciones para la reforma y puesta en alquiler de viviendas vacías. Objetivo: sacar al mercado el mayor número posible de viviendas vacías y ponerlas en alquiler protegido a través de Alokabide. Los incentivos serán mayores en la Parte Vieja con objeto de revitalizar el Casco Histórico.





## **ALOKAIRU ORDAINKETA ERRAZTEKO DIRULAGUNTZAK** AYUDAS PARA FACILITAR EL PAGO DEL ALQUILER

**Alokairu aukera berriak sustatu eta tolosarrei alokairu ordainketa errazteko bide berriak landu. Alokairu-gastuak ordaintzeko dirulaguntza lerroa momentuan momentuko beharretara egokitu, tolosar guztiei laguntza eskuratzeko aukera eskaintzeko helburuarekin. Eskatzaileen profilak, errenta mugak, diru sarrerak etab. berraztertu, gazteei ez ezik, kolektibo guztiei laguntza bermatzeko.**

Promoción del alquiler y nuevas vías para facilitar el pago de alquiler. Adaptar a las necesidades de cada momento la línea subvencional para sufragar los gastos de alquiler. Se revisarán los perfiles de las personas solicitantes, los límites de renta, los ingresos, etc., para garantizar la ayuda y el acceso a la vivienda a todos los colectivos.



## **ETXEBIZITZA BULEGOA INDARTU** REFORZAR LA OFICINA DE VIVIENDA

**UDATE herritarren arreta zerbitzuan kokatutako etxebizitza bulegoa egonkortu eta sendotuko da herritarrek une oro etxebizitza alorrean eskuragarri dituzten laguntza eta aukera guztien berri izan dezaten. Bulegoaren helburu nagusia izango da herritarrei zuzeneko arreta eskaini eta informazioa ematea, informazioa helaraztearekin batera, izapideen kudeaketan laguntza eskaintzeko tolosar guztiei.**

Reforzar la oficina de vivienda ubicada en el servicio de atención ciudadana UDATE para que la ciudadanía tenga a su alcance en todo momento la información sobre las ayudas y oportunidades disponibles en materia de vivienda. El objetivo principal de la oficina será prestar atención presencial y personalizada a la ciudadanía, ofrecer información y ayudar en la gestión de los trámites.



## **ETXEBIZITZA BERRIEN GARAPENA: SAN ESTEBANEN 650 ETXEBIZITZA**

NUEVAS VIVIENDAS: 650  
VIVIENDAS EN SAN ESTEBAN

**San Esteban auzoaren garapena bultzatu, auzoaren eraberritzea sustatzearekin batera, egungo zein etorkizuneko etxebizitza beharrei erantzuteko. 650 etxebizitza berri ahalik eta etxebizitza gehienak (%65) babestuen izan daitezten, alokairuaren aldeko apustuan. Halaber, jada Plan Orokorrean onartuta dauden eremuen garapena bultzatu, besteak beste: Miserikordia Zaharra (80 etxebizitza).**

Impulsar el desarrollo del barrio de San Esteban para dar respuesta a las necesidades actuales y futuras de vivienda. Construcción de 650 nuevas viviendas para que el mayor número posible (65%) sean protegidas, apostando por el alquiler. Se impulsará el desarrollo de los ámbitos ya aprobados en el Plan General, entre otros, Miserikordia Zaharra (80 viviendas).



# KALITATEZKO ELIKADURAN ERREFERENTE REFENTES EN LA ALIMENTACIÓN DE CALIDAD

**ELIKER - Kalitatezko Elikaduraren Zentroa sustatzen jarraitu, elikadura kate osoa elkarlanean jarriz, lehen sektorea eta industria agroalimentarioa indartzeko. Proiektu kolaboratibo berritzaileak martxan jarri Tolosa gastronomia alorrean erreferente bihurtzeko. ELIKER baliatu azoka berezien sustapenerako eta larunbatetako azoka indartzeko.**

Seguir impulsando ELIKER - Centro de la Alimentación de Calidad, colaborando con toda la cadena alimentaria y el ecosistema para fortalecer el primer sector y el tejido industrial agroalimentario. Puesta en marcha de proyectos colaborativos innovadores junto a agentes del sector para apuntalar Tolosa como referente gastronómico.

## APATTAREN BIGARREN FASEA SEGUNDA FASE DE APATTA

**Ekonomiaren garapen eta sustapenerako, Apatta industriagunearen 2. fasea gauzatu, obra proiektua aurrera eramanaz enpresa berriak erakarri eta kalitatezko enplegua sustatzeko. Industrialdeen zaharberritzea bultzatzeko neurriak hartu.**

Ejecución del proyecto de obra de las 2ª fase del polígono industrial de Apatta para promover la economía industrial, atraer nuevas empresas y generar empleo de calidad. Medidas para mejorar los polígonos industriales antiguos.





## AZOKAREN MODERNIZAZIOA MODERNIZACIÓN DEL MERCADO

**Azoka garai berrietara egokitzeko urratsak egiten jarraitu, berezkoa duen izaera eta tradizioari eutsiz, azokaren modernizazioa bultzatuz, gazteak azokara erakartzeko eta azokaren etorkizuna bermatzeko. Azoka Lagunak egitasmoa sendotu garaian garaiko produktuen kontsumoa bultzatzeko.**

Promover la modernización del mercado para adaptarlo a los nuevos tiempos y hábitos de consumo y así atraer a personas jóvenes al mercado de los sábados y garantizar su futuro, manteniendo su carácter y esencia. Reforzar el proyecto Azoka Lagunak para impulsar el consumo de productos locales y de temporada.



## MERKATARITZA ETA OSTALARITZA COMERCIO Y HOSTELERÍA

**Hiri ekonomia indartu proiektu eta diru laguntza lerro berriak sustatuz negozio berrien irekiera bultzatu eta belaunaldi aldaketari eta digitalizazioaren erronkari erantzuteko. Lokal hutsak merkaturatzeko egitasmoak aztertu. Alde Zaharreko merkataritza biziberritzeko lanketa berezia egin.**

Fortalecer la economía urbana impulsando nuevos proyectos y líneas de subvención para la apertura de nuevos negocios y afrontar los retos del relevo generacional y la digitalización. Iniciativas para promover nuevas actividades en los locales vacíos. Especial atención a la revitalización comercial de la Parte Vieja.



## TURISMOA, AUKERA BAT TURISMO SOSTENIBLE

**Baliabide turistikoak indartu: alojamendu turistiko berriak, txirrindu-bideen eta mendi eta berdeguneen inguruko gidak; familia turismoa eta autokarabana gunearen egokitzapena.**

Consolidar Tolosa como destino turístico: estudio de nuevas plazas hoteleras, guías sobre vías ciclistas, recorridos verdes y de montaña; turismo familiar y adaptación de la zona de autocaravanas.



## EKINTZAILETZA ETA TALENTUA EMPREDIMIENTO Y TALENTO

**EMARI coworking gunea ekintzaitzaren erreferentziako gune, formakuntza edota aholkularitzarako. Tolosako talentuaren sarea eratu. Lanbide Heziketaren eta enpresen arteko harremanak indartu.**

Reforzar EMARI coworking como lugar de referencia para la formación y/o el asesoramiento. Crear una red del talento de Tolosa. Potenciar las relaciones entre centros de FP y empresas.



## LANGABETUENTZAT AUKERA BERRIAK NUEVAS OPORTUNIDADES PARA PERSONAS DESEMPLEADAS

**Langabetuentzat enplegu eta formakuntza aukera berriak urteko Enplegu Planen eta Enplegu Azoken eskutik. Garapen Agentzia indartu, bereziki arlo ekonomikoan.**

Nuevas oportunidades de formación y empleo para personas desempleadas por medio de Planes de Empleo y Ferias de Empleo. Fortalecimiento de la Agencia del Desarrollo en el ámbito económico.



## KULTUR AZPIEGITUREN BERRANTOLAKETA REORGANIZACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS CULTURALES

**Liburutegi berriaren proiekturako kultur azpiegituren eta zerbitzuen berrantolaketa eta 8 urterako plangintza: Iturritza Jauregian Euskararen Etxea; Gorosabelen Artearen Egoitza eta Abastosen gazte eta nerabeen gunea, Topaguneko zerbitzua zabaldu eta Ikasgela sortzeko (365/24/7 zabalik). Berrantolaketa baliatu Alde Zaharra biziberritzeko.**

Planificación de 8 años para la reordenación de infraestructuras y servicios culturales: nueva biblioteca, Euskararen Etxea en el palacio Iturritza; Artearen Etxea en Gorosabel; espacio para jóvenes y adolescentes en Abastos (ampliación del servicio Topagunea y Aula de Estudio abierta 365/24/7).

## EKIPAMENDUEN ERABILGARRITASUNA, ONDAREA BABESTEKO USABILIDAD DE LOS EQUIPAMIENTOS PARA PROTEGER EL PATRIMONIO

**Ekipamenduen kontserbazio, erabilgarritasun eta bideragarritasuna ondarea babesteko. Eraikin publikoek gain (Aranburu Jauregia, Kultur Etxea...), eraikin pribatuetarako (Santa Klara, Sakramentinoak, Telefonikako eraikina) erabilera berriak aztertu jabeekin elkarlanean, adibidez zuzkidura-bizitokiak sortzeko.**

Conservación, uso y viabilidad de los equipamientos público-privados para la protección del patrimonio. Además de los edificios públicos (Palacio Aranburu, Casa de Cultura,...), analizar nuevos usos para los edificios privados -Santa Clara, Sacramentinos o Telefónica- (ejemplo: alojamientos dotacionales).



# APARKALEKU AUKERA BERRIAK: ERANTZUN INTEGRALA ALTERNATIVAS DE APARCAMIENTO: RESPUESTA INTEGRAL

**Santa Klara eremuan aparkaleku sorrera aztertu. Geltoki plaza berritzeko proiektua: lur azpiko aparkalekua eta geltoki irtermodala. TAOaren berrazterketa, disuasioko aparkaleku berria eta aparkaleku publikoen erabileraren optimizazioa. Lapurdikoa berreskuratzean, herritarren eskura jartzeko formula aztertu.**

Estudio de aparcamiento en la zona Santa Clara. Proyecto de renovación plaza Geltoki: parking subterráneo y estación intermodal. Revisión OTA, nuevo aparcamiento disuasorio y optimización del uso de los aparcamientos subterráneos. Al recuperar Lapurdi, estudiar la fórmula para ponerlo a disposición de la ciudadanía.



## ZUMARDITXIKIA TOLOSAR GUZTIENTZAT ZUMARDITXIKIA A DISPOSICIÓN DE LA CIUDADANÍA

**Zumarditxikia herritarren eskura jarri eta eremua berreskuratu. Santa Klara kaleko mugikortasuna hobetu, espaloiak zabalduz. Zumarditxikia erreferentziatzeko gune bilakatu.**

Recuperar y poner a disposición de la ciudadanía Zumarditxikia. Mejorar la movilidad peatonal en la calle Santa Clara ampliando aceras. Convertir Zumarditxikia en un lugar de referencia.



## BERDEGUNE ETA ARNASGUNE BERRIAK NUEVOS ESPACIOS ABIERTOS Y ZONAS VERDES

**Lurramendi eremuan berdegune eta parke berria sortu, proiektua herritarrekin elkarlanean garatuz. Herriko gune berdeak hobetu eta Alde Zaharreko etxadi-patio bat berreskuratu.**

Nuevo parque y espacio verde en lurramendi a disposición de la ciudadanía. Mejorar y cuidar las zonas verdes de Tolosa y crear nuevos espacios abiertos en la Parte Vieja, recuperando un patio.



## ARKAUTEN MUSEOA ETA BIODIBERTSITATE GUNEA MUSEO Y AULA DE LA BIODIVERSIDAD EN ARKAUTE

**Biodibetsitate Gunea eta Euskal Mendizaletasunari buruzko Museoa Larramendiko Arkaute txaletean kokatu, EMMOA Fundazioarekin eta Mendi Federazioekin elkarlanean.**

Aula de la Biodiversidad y Museo del Montañismo Vasco en el chalet de Arkaute en colaboración con la Fundación EMMOA y las Federaciones de Montaña.



## KALEEN ZAHARBERRITZEA RENOVACIÓN DE CALLES

**Pertsonak erdigunean eta oinezkoek lehenetasuna kale eta espazioen zaharberritzean, eremuak irisgarriagoak, atseginagoak eta inklusiboagoak bilakatzeko: Soldadu, Barrena, Antonio Lekuona eta Beotibar kaleak, Trianguloko zorua, Foruen etorbidearen birmoldaketa eta Berazubi, Kondeaneko aldapa eta Elkano kaleen arteko irisgarritasuna hobetzeko azterketa. Rondilla kaleko mugikortasuna hobetu.**


Modelo de ciudad que pone a las personas en el centro y da prioridad a los peatones. Una Tolosa amable, accesible e inclusiva. Renovación de calles y espacios: Soldadu, Barrena, Antonio Lekuona y Beotibar, pavimento Triángulo y remodelación avenida de los Fueros. Analizar la mejora de la accesibilidad entre las calles Berazubi, Kondeaneko aldapa y Elkano. Mejorar la movilidad en la calle Rondilla.



## TOLOSA TXUKUN ETA GARBIA TOLOSA LIMPIA Y CUIDADA

**Espazio publikoa egoera onean hiri mantenuari eta garbiketari garrantzia berezia emanaz, baita erreka garbiketari ere. Hiri altzarien mantenu egokirako plangintza, argiteria publikoa eta txakur guneen azterketa. Altzairuen bilketa egun gehiagotara zabaltzea eta sortzaile bereziekin bilketa pertsonalizatua adostu (beira, organikoak....). Gaikako bilketa datuak hobetzen jarraitzeko kontzientziazio kanpainak egin.**

Mantener el espacio público en buenas condiciones priorizando las labores de mantenimiento y limpieza. Planificar los trabajos para el adecuado mantenimiento del mobiliario urbano, el alumbrado público y los espacios para perros. Ampliar los días de recogida de los residuos voluminosos. Recogida personalizada para generadores de residuos especiales. Campañas para mejorar los datos de recogida selectiva.



## AUZOS AUZOKO PLANGINTZA PLANIFICACIÓN BARRIO A BARRIO

**Landa eremuko baserri bideak eta landa auzoetako jarduketa plana auzotarrekin. Auzoz auzoko plangintza, bizilagunen beharrak kontuan hartuz: Alde Zaharreko Plan Bereziaren aldaketa eta Batzorde Iraunkorra bizilagunekin; Araba etorbideko eta lurreko plazak; lurramendiko pasealekua; jolas-kirolgune berria eta auzo elkartearantzat lokala Larramendin; San Blas auzoaren berrurbanizazioa.**


Mejora de caminos y plan de actuación de los barrios rurales. Planificación barrio a barrio atendiendo a las necesidades de vecinos/as: revisión del Plan Especial de la Parte Vieja y Comisión Permanente interdisciplinar; plazas avenida de Álava y Lurre; paseo de Lurramendi; nueva zona recreativa deportiva y local para la asociación de vecinos en Larramendi; reurbanización de San Blas.



## TRANSIZIO ENERGETIKOA TRANSICIÓN ENERGÉTICA

**Tolosa berdea, trantsizio energetikoaren eta energia berriztagarrien eskutik, klima aldaketari aurre egiteko. Udal eraikinetan argiztapen sistemak aldatu. Eguzki plaka berriak. Komunitate energetikoen sustapena. Kotxe elektrikoaren kargarako puntuak. Energia Bulegoa, etxebizitzak eta eraikinak jasangarriagoak egiteko dirulaguntzen inguruko informazioarako eta energia alorreko aholkularitza teknikorako.**

Avanzar hacia la transición energética y las energías renovables en respuesta al cambio climático. Nuevas placas solares. Luces de bajo consumo en edificios municipales. Comunidades energéticas. Puntos de carga para vehículos eléctricos. Oficina de Energía: información y asesoramiento técnico sobre las ayudas para la eficiencia energética en viviendas y edificios, entre otros.



## MUGIKORTASUN JASANGARRIA MOVILIDAD SOSTENIBLE

**Mugikortasun Plan berria jasotako ekintzak aurrera eramanez, mugikortasun ardatz berriak sortu, oinezkoen lehentasuna eman eta mugikortasun eredu jasangarriagoak sustatzeko. Bizikletaren erabilera bultzatu eta bizikleta aparkaleku berriak sortu, horietako batzuk estaliak. Hiribusaren erabilera indartu.**

Llevar a cabo las acciones recogidas en el nuevo Plan de Movilidad: crear nuevos ejes de movilidad, dar prioridad al peatón y promover modelos de movilidad más sostenibles. Impulsar el uso de la bicicleta y crear nuevos aparcabici, algunos de ellos cubiertos. Reforzar el uso del Hiribus.



## INGURUMENAREN ZAINITZA CUIDAR DE NUESTRO ENTORNO

**Ingurumenaren kontserbazioa eta zaintzarako eremu berdeak eta degradatuak berreskuratu, Baso Eskola proiektua indartu eta azpiegitura berdeen inbentarioa egin. Tolosako ingurune naturala ezagutzera eman eta pertsonen eta naturaren arteko errespetuzko harremanak sustatu eta ingurune naturala balioan jarri Biodibertsitate Gunearen bidez. Ibaiarekiko lotura sendotu eta ekimen gehiago antolatu urari lotuta.**

Recuperar zonas verdes y degradadas para la conservación del medio ambiente. Reforzar el proyecto Baso Eskola. Realizar un inventario de infraestructuras verdes. Dar a conocer el entorno natural de Tolosa. Fomentar el compromiso de las personas con el medio ambiente. Poner en valor el medio natural a través del Aula de la Biodiversidad. Reforzar la conexión con el río, a través de nuevas actividades.



## NERABEEN ETA GAZTEEN HIRIA ADOLESCIENCIA Y JUVENTUD

**Haur, Gazte eta Nerabeen Plan Estrategikoan jasotako ekimenak gauzatu. Nerabeen Hiria, erakundeak gazte eta nerabeengana gerturatu eta gazteak erabaki guneetan inplikatzeko. Hezkuntza Mahaiaren bidez herriko ikastetxeen arteko elkartopaketa sustatu. Asteburuetan ikastetxeetako espazio eta jolastokiak erabiltzeko aukera aztertu.**

Implementación del Plan Estratégico de Infancia, Juventud y Adolescencia. Proyecto Ciudad de la Adolescencia para acercar las instituciones a jóvenes e implicarles en los espacios de decisión. Mesa Educativa para fomentar el encuentro entre los centros educativos. Estudiar el uso de espacios y patios escolares los fines de semana.

## PARTAIDETZA BIDE IRAUNKORRAK VÍAS DE PARTICIPACIÓN PERMANENTES

**Politika publikoak taldean eta modu parte hartzailean eraikitzen jarraitzeko, partaidetza bide iraunkorrek ezarri Udalean. Aurrekontu parte hartzaileez gain, proiektuak tolosarrekin elkarlanean garatzeko saioak gauzatu eta lau urtean behin Herritarren Batzarra osatu galdera edota erronka zehatz baten inguruan deliberatzeko.**

Crear vías de participación permanentes para seguir diseñando las políticas públicas de forma colectiva y participativa. Además de los presupuestos participativos y las sesiones participativas para desarrollar los proyectos locales en colaboración con los/las tolosarras, cada cuatro años se llevará a cabo una Asamblea Ciudadana para deliberar sobre una pregunta o un reto concreto.







## **DIRU PUBLIKOAREN KUDEAKETA** GESTIÓN DEL DINERO PÚBLICO

**Baliabide publikoak modu arduratsuan, zorrotzean, eraginkorrean eta zintzoan kudeatu egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko eta herriaren garapen jasagarria sustatu eta bermatzeko.**

Gestión responsable, rigurosa, eficiente y honesta de los recursos públicos para responder a las necesidades actuales y futuras y promover y garantizar el desarrollo sostenible del municipio.



## **GERTUTASUNA ETA ELKARLANA** CERCANÍA Y COLABORACIÓN

**Udal jarduna gertutasunean eta elkarlanean oinarritu, lankidetzazko gobernantza eredu berrien alde. Herriarekin eta herritarrentzat lan egin, umiltasunez, zintzotasunez eta konpromiso osoz.**

Basaremos nuestra labor en la cercanía, la escucha activa y la colaboración para trabajar por, para y con el pueblo de Tolosa, desde la humildad, la honestidad y con total compromiso.



## **GARDENTASUNA** TRANSPARENCIA

**Gardentasuna udal kudeaketaren ikur. Udal jardunari buruzko informazioa herritarren eskura: Gardentasun Ataria, Legealdi Plana eta legealdi amaierako kontu emate txostena.**

Transparencia como seña de identidad. Información sobre la actuación municipal: Portal de Transparencia, Plan de Legislatura y Memoria de Gestión de la legislatura.



## **KALITATEZKO ARRETA** ATENCIÓN DE CALIDAD

**Tolosaerri kalitatezko arreta eta zerbitzuak bermatzea da jomuga nagusia. UDATE, herritarren arreta zerbitzua hobetzen eta indartzen jarraitu, herritarrei erraztasunak emate aldera.**

Garantizar una atención y unos servicios de calidad. Seguir mejorando y reforzando el servicio de atención ciudadana UDATE con el fin de dar mayores facilidades a la ciudadanía.



## **ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA** ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

**Udala garai eta behar berrietara egokitzen jarraitu. Digitalizazioaren aukerak baliatu herritarrei izapideak era elektronikoa egiteko aukera zabaltzeko, aurrez aurreko arretari uko egin gabe.**


Avanzar en la digitalización y la administración electrónica para que la ciudadanía pueda realizar trámites de forma telemática, sin renunciar a la atención presencial.



## **GERTUKO UDALTZAINGOIA** POLICÍA LOCAL CERCANA

**Segurtasuna oinarri eta eskainitako zerbitzua hobetzeko helburuarekin Udaltzaingoaren Plan Estrategiko berria aurrera eramán, gertuko Udaltzaingo moderno eta inplikatuá sustatzeko.**

Implantación del nuevo Plan Estratégico de la Policía Local para la seguridad ciudadana y la mejora de los servicios prestados, por medio de una Policía Local cercana, moderna e implicada.



**1 GIZARTE ZERBITZUAK GERTURATU**  
ACERCAR LOS SERVICIOS SOCIALES




**2 OSPITALE PUBLIKO BERRIA**  
NUEVO HOSPITAL COMARCAL



**3 ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA**



**4 ETXEBIZITZA BABESTUAK ALOKAIURUAN**  
VIVIENDAS PROTEGIDAS EN RÉGIMEN DE ALQUILER



**5 650 ETXEBIZITZA SAN ESTEBANEN**  
650 NUEVAS VIVIENDAS EN SAN ESTEBAN



**6 ETXEBIZITZA HUTSAK ALOKAIURU BABESTUAN**  
VIVIENDAS VACÍAS EN ALQUILER PROTEGIDO



**7 ETXEBIZITZA BULEGOA INDARTU**  
REFORZAR LA OFICINA DE VIVIENDA



**8 ELIKER, KALITATEZKO ELIKADURAREN ZENTROA**  
ELIKER, CENTRO DE LA ALIMENTACIÓN DE CALIDAD



**9 APATTAREN 2. FASEA**  
2º FASE DE APATTA



**10 APARKALEKU BERRIAK**  
NUEVOS APARCAMIENTOS



**11 ZUMARDITXIKIA BERRESKURATU**  
RECUPERAR ZUMARDITXIKIA



*Aurrera, batera!*

# Tolosa

*Mira al futuro*



**12 ALDE ZAHARRA: PLAN BEREZIA**  
PARTE VIEJA: PLAN ESPECIAL



**13 EUSKARAREN ETXEA**



**14 KULTUR AZPIEGITUREN BERRANTOLAKETA**  
REORGANIZACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS CULTURALES



**15 BERAZUBIN BELAR ARTIFIZALA**  
HIERBA ARTIFICIAL BERAZUBI



**16 AMAROTZEKO FRONTOIA ESTALI**  
CUBRIR EL FRONTÓN DE AMARÓZ



**17 UR JOLASAK HAUR JOLASGUNE BATEAN**  
JUEGOS DE AGUA EN UN PARQUE INFANTIL



**18 EGUZKI PLAKA BERRIAK**  
NUEVAS PLACAS SOLARES



**19 KALITATEZKO ARRETA**  
ATENCIÓN DE CALIDAD



**20 PARTAIDETZA BIDE IRABUNKORRAK**  
VÍAS DE PARTICIPACIÓN PERMANENTE



*Orain norabide argi batekin  
aurrera egiteko garaia da*

*Ahora es momento de avanzar  
con un rumbo claro*



**HARREMANETAN JARRI**  
PONTE EN CONTACTO

 @EAJPNVTolosa

 @EAJTolosa

 @eajpvnvipuzkoa

 @eajpvnvipuzkoa

 688 625 230

 tolosa@eaj-pnv.eus

**#AURRERABATERA**